

# **USURBILGO KULTURGINTZARAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2011-2016**

## **KULTURGINTZAREN GEROA ELKARREKIN ERAIKITZEN**



Usurbilen, 2011ko maiatzean

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>3</b>
<b>2. PROZESUA.....</b>	<b>4</b>
1. Helburuak	
2. Iraupena	
3. Partehartzaileak	
4. Talde teknikoa	
5. Metodologia	
6. Balorazioa	
<b>3. USURBILGO KULTURGINTZAREN DIAGNOSIA.....</b>	<b>6</b>
1. Historia.....	6
2. Gaurko egoera.....	8
1. Kultur eragileak	
2. Taldeen arteko harremanak	
3. Kultur ekintzak	
4. Kultur ekintzak antolatzeke gogoak	
5. Kultura eta auzoak	
6. Publikoa	
7. Kultur ekintzak gizarteratzea	
8. Kultur tokiak	
<b>4. USURBILGO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA.....</b>	<b>11</b>
1. Helburu orokorrak.....	11
2. balioak.....	12
3. Lan ildoak eta ekintzak.....	13
1. Kultura balioan jartzea	
2. Herritarrak	
3. Auzoak	
4. Taldeak	
5. Kultura antolaketa	
<b>5. ERANSKINAK.....</b>	<b>17</b>
1. Bileretako asistentziak	
2. Bileretako aktak	
3. Bileren balorazioak	
4. Diagnostika egiteko ekarpenak	
5. Denbora-lerroa	
6. Kultur eskaintzaren azterketa I	
7. Kultur eskaintzaren azterketa II	
8. Plan estrategikorako ekarpenak	
9. Argazkiak	
10. Diagnostika egiteko erabilitako euskarriak	

## **1. §ARRERA**

Kulturgintza bizirik dago Usurbilen. Bistakoa da Usurbilgo kultur eskaintza zabal, oparo eta koloretsua dela.

Bestalde, parte-hartzearen kulturak berezia egiten du Usurbil: hogeita hamar elkartetik gora daude herrian, herriko elkarten ekimenez kultur ekintza ugari bideratzen dira... Edozein gairen inguruan erraz biltzen den herria da Usurbil.

Herriko ekimenak eta udal ekimenak, kulturgintzan, askotan bat egiten dute, elkar elikatuz. Asko dira herriko kultur elkarteek eta udalak elkarrekin edo elkarren laguntzaz antolatzen diren ekimenak.

Parte-hartzearen bidetik eta herria eta udala uztartzearen asmoarekin, Usurbilgo Kultura Aholku Batzordea sortu zen 1999an. Garrantzi handia izan zuen hasierako Kultura Batzordeak egindako lanak, eta geroari begira, parte-hartzearen ikuspegitik bide bat egina utzi zuen.

Etenaldi baten ondoren, 2008ko urtarrilean berriz ere Kultura Aholku Batzarraren filosofiari heldu eta batzorde berri bat sortu zen. 2008tik 2011ra bitartean Kultura Aholku Batzordeak hamahiru bilera egin ditu.

Kultur arloko lanketa ugari egin dira Kultura Aholku Batzordean: Mikel Laboaren omenezko ekintzen antolaketa, Kultur Etxe berriaren proiektua, taldeen harremanak hobetzeko helbide trukaketa, udaleko diru-laguntza oinarrietan hobetzeko puntuen proposamena... Modu honetara, hiru urte hauetan herriko kulturgintza biltzeko gune garrantzitsu bihurtu da Kultura Aholku Batzordea.

2011n, Kultura Aholku Batzordeak heldutasun puntu batera iristearekin batera, geldialditxo bat egiteko premia sumatu du, helburu eta erronka berriak jartzeko premia. Kultura Aholku Batzordearen hitzetan, erronka berri horiek honela izendatu ziren:

- Kultura arloan elkarreragineko prozesu gehiago bideratzearen premia: “Kultur talde” izatetik “kultur herri” izateko pausua emanez.
- Kultur ekintza ugari bideratu beharrean, prozesuei garrantzia ematea (ekintzak antolatzeko bideari)
- Kultura Aholku Batzordean bertan taldeen parte hartzea indartzea (kopuru eta eduki aldetik)

Udalak, Aholku Batzordearen helburuekin bat eginda, gaiari heldu eta bideratzen lagundu nahi izan du. Borondate honetatik abiatuta parte hartze prozesuetan aditua den Nicola Foronirekin harremanetan jarri da Udala, Kulturako Parte Hartze prozesuari hasiera emanez.

## 2. PROZESUA

### 2.1. HELBURUAK:

Kulturako Parte Hartze prozesuaren **helburuak** hauek izan dira:

- Kultura arloko gogoeta estrategikoa egitea (Historikoa eta gaurkoa)
- Etorkizuneko kultur ildoak adostea
- Kultur talde izatetik kultur herri izateko bidea egitea eta kultur eragileen kohesioa
- Kultur subjektu izatea

### 2.2. IRAUPENA:

Urtarrilaren 30ean hasi eta maiatzaren 25ean amaitu den prozesu honetan sei bilera egin dira modu honetara banatuak:

- Lehenengo bietan: Usurbilgo kultur historia lantzea
- Ondorengo bietan: Usurbilgo gaur egungo kultur errealitatearen azterketa egitea
- Azken bi bileretan, Kultur arloko lan-ildo estrategikoak lantzea

### 2.3. PARTEHARTZAILEAK:

Bilera hauek herriko elkarte eta norbanako guztiei zabaldu zaizkie, erabat irekiak izan dira. Prentsa bidez eta komunikazio zuzenaren bidez gonbidatu dira herritarrek bileretara.

Bilera hauetan, 39 herritarrek hartu dute parte. Batz bestea, bilera bakoitzean 20 lagunetik gora izan dira. Bilera desberdinetan parte hartu duten kideak hauek izan dira:



Agurne Alkorta, Zumarte Musika Eskola

Alaitz Aizpurua, Noaua!  
Amaia Etxeberria, Ziortza  
Ana Isabel Flores, Abiso Gehiago Gara taldea  
Ander Izeta, Teatruak  
Andoni Castro, Usurbiltzen  
Ane Manzidor, Agiñako Jai Batzordea  
Aritz Gorriti, Noaua!ko kazetaria  
Garazi Zubimendi, Zubieta Lantzen  
Garbiñe Astiazaran, Txerriki  
Irati Larrañaga, Kalezarko Jai Batzordea  
Ixabel Agirresarobe  
Jexux Agirresarobe, Nafartarrak  
Jon Aizpurua, Bota Punttuba  
Jon Osa, Akerra Gaztetxea  
Jose Ramon Furundarena, Jexux Artze Kultur Elkarte  
Joseba Tapia  
Joseba Rezola, Antxomolantxa  
Juanjo Allur, Hurbilago merkatari elkarte  
Juan Luis Atxega, Organoaren Lagunak  
Julian Urkiola, Erle Lagunak  
Leire Bereziartua, Agiñako Jai Batzordea  
Leire Iturriotz, Teatruak  
Loli Maiz, Irriu  
Lontxo Zubiria, Nafartarrak  
Maite Iribar, kultura teknikaria  
Maite Roteta, San Estebango Jai Batzordea  
Maite Santamaria, Palestinaren Alde Plataforma  
Mari Jose Bereziartua, San Praixku Guraso Elkarte  
Maria Luisa Alkorta, Udarregi Ikastola  
Miguel Anjel Goenaga, Buztinzulo  
Mikel Usabiaga, Kantu Taldea  
Nerea Erauntzetamurgil, kultura zinegotzia  
Nerea Usandizaga, Bihurri Ludoteka  
Nicola Foroni, parte hartze prozesuetan aditua  
Rosa Zubeldia, Etumeta Euskaltegia  
Tiburtxio Arruti, Gure Pakea  
Xabier Mikel Errekondo, alkatea  
Yolanda Arrieta

Bilera bakoitzeko asistentzia orriak 1 eranskinean jaso ditugu.

#### **2.4. TALDE TEKNIKO:**

Lanaren atzean talde tekniko bat osatu da. Lanaren gidaritza parte hartze prozesuetan aditua den Nicola Foronik eraman du, udal kultur teknikariak dinamizazio lana bideratu du eta udaleko bi ordezkari politiko ere talde teknikoko partaide izan dira. Lan-talde teknikoaren zeregina izan da: prozesua bideratzea, bilera planifikatzea, memoria egitea...

## **2.5. METODOLOGIA:**

Metodologia parte hartzailea erabili da saioetan. Norberaren esperientziatik abiatuta, talde lanera ekarri da Usurbilgo Kulturgintzari buruzko gogoeta. Lan individuala eta talde lana egin dira. Eztabaida, elkarrizketa eta batez ere hitza izan dira nagusi parte hartze prozesuko saioetan.

## **2.6. BALORAZIOA:**

Bilera guztietan balorazioa egin da. Bestalde, bileretan aktak ere jaso dira. (balorazioak eta aktak 2 eta 3. eranskinetan jaso dira)

Prozesu bezala hartuta, balorazio bat eginez gero, puntu hauek azpimarratuko lirateke:

- Taldea hasieratik amaieraraino mantendu da
- Parte hartzaile kopurua altua izan da
- Kultura Aholku Batzordeko partaide ez diren herritar ugari etorri dira
- Eduki aldetik oso mamitsuak izan dira saioak: ideia eta iritzi ugari bildu eta elkartrukatu dira.
- Jendeak muga handiegirik gabe, bat-batekotasunez, modu naturalean hitz egin du
- Izpiritu eraikitzailea izan da nagusi saioetan

## **3. DIAGNOSIA**

Kultura mailako hausnarketa egin da diagnosian. Partehartzaileen ikuspegitik abiatuta Usurbilgo kulturgintzaren historia osatu da aurrena: bai maila pertsonalean, bai elkarte mailan eta baita herri mailan ere. Ondoren, gaur egungo egoera aztertu da. Ahulezia, indar eta beharren azterketa egitea izan da diagnosiaren helburua.

Diagnosia egiteko Usurbilgo kultur errealitatearen orainean eta iraganen jarri dira begiak.

Diagnosia osatzeko erabili diren lan-tresnak, eta informazioa 10 eranskinen jaso dira: denbora-lerroa, kultur agendak, 2010eko kultur ekintzen mapa, kulturako diru-laguntzetara aurkeztutako ekintzak, Sutegiko asistentziak...

Talde lanean eman diren iritziak, berriz, 4 eranskinean jaso dira.

### **3.1. HISTORIA**

Diagnosia osatzeko Usurbilgo Kulturaren denbora lerroa osatu da (5. eranskinean jaso da). Denbora lerroan hasi 1959tik 2011 urte bitarteko kultur ekintzak jaso dira.



1959-2011 urte bitartea hiru zatitan banatu da. Hauek izan dira denbora-tarte bakoitzari lotutako ondorio batzuk:

#### **1959-1996 tartean**

- Kultur ekitaldiak antolatzeko moduan azpimarratu dira; autogestioa, auzolana, altruismoa, baliabide gutxi izatea...
- Herrian kulturgintzarako pertsonaia estrategikoak izatea: Zumeta, Artzetarrak, Mikel Laboa, Felix Aizpurua...

#### **1996-2006 tartean**

- Kultura sustatzeko talde izaeraren beharra nabarmentzen da.
- Hurbileko kultura eta kultura partehartzailea baloratzen dira

#### **2006-2011 tartean**

- Kultura Aholku Batzordearen sorrera
- Taldeetan erreleboak daude herrian
- Udalaren papera garrantzitsua izan da kulturgintzan: baliabidetan, diru-laguntzetan...

## **3.2. GAURKO EGOERA**



Usurbilgo Kulturgintzaren gaurko egoera aztertzeko indargune, ahulezi eta beharren azterketa sakona egin da. (6 eta 7. eranskinean jaso dira), Bestalde, kultur eskaintzaren azterketa ere egin da denbora, auzoak, ekintza motak eta adina kontuan hartuta. (8. eranskinean jaso da)

Azterketa hori oso baliagarria izan da gaurko egoeraren hausnarketa ikuspegi, elementu eta gai desberdin ugari atera direlako: kultur eragileak, taldeen arteko harremanak, kultur ekintzak, kultur ekintzak antolatze gogoak, kultura eta auzoak, publikoa, kultur ekintzak gizarteratzea, kultur tokiak.

Gaur egun, kultur ikuspuntutik, modu honetara ikusten da Usurbil:

### **3.2.1. KULTUR ERAGILEAK**

Herritarrek Usurbil “kultur herri bizia” dela esan dute. Kultur eragile ugari eta mota askotakoak daudela azpimarratu da.

Udalak kultur elkarteei babesa eta erantzuna ematen diela esan dute, bereziki azpiegitura mailan eta maila ekonomikoan.

### **3.2.2. TALDEEN ARTEKO HARREMANAK**

Kultur taldeen artean harremana, koordinazioa eta komunikazioa falta dela nabarmendu da, talde bakoitzak modu indibidualean lan egiten duela adieraziz. Zentzu honetan, herritarrek kultur taldeak “itxiak” daudela sumatzen dute.

Taldeen artean harreman “natural” baten falta dagoela adierazi da: iritzi trukaketa eta kritikarako ausardia falta, elkarri laguntzeko biderik eza...

Herriko Elkarte eta Udalaren arteko harremana egoki baloratu da.



### **3.2.3. KULTUR EKINTZAK**

Herritarrek kultur ekintza ugari antolatzen direla diote. Eskaintzetan oparo eta ekintzetan aniztasuna ikusten da. Kultur ekintza gehiegi antolatzen direnaren sentipena ere badago.

Askotan ekintzak denbora jakin batean kontzentratzen direla ikusi da, elkarri gainjarriz.

Desoreka ikusten da ekitaldi kopuruan hilabete batzuetatik besteetara: hilabete batzuetan ekintza asko antolatzen dira, besteetan, berriz, oso gutxi.

Urtean zehar antolatzen diren ekintza ugari finkoak direla ikusi da (Sagardo Eguna, Erle Eguna...), eta beste asko, berriz, finkatze bidean ikusten dira (Soinurbil, Kale Antzerki Eguna...)

Bizipen, edo esperientzia gisa, ekintza batzuk bereziki azpimarratu dira: Sagardo Eguna eta Jaiak.

Ekintza motari begiratuta, herritarrek uste dute antzerki eskaintza handia dagoela herrian, musika eskaintza ez dela hain oparoa eta dantzari lotutako ekintzarik ia ez dela antolatzen.

Hitzaldiak ere gutxi antolatzen direla ikusi da.

Udala eta herriko elkarteak dira ekintzen antolatzaile nagusiak, formula desberdinak erabiliz: elkarlanean, bakarrik, diru-laguntzen bidez...

Proporzioari begiratuta, udalak antolatzen dituen ekintzak baino gehiago dira herriko elkarteek antolatzen dituzten ekintzak.

### **3.2.4. KULTUR EKINTZAK ANTOLATZEKO GOGOA**

Herritarrek azpimarratu dute Usurbilen badagoela kultur ekitaldiak antolatzeke gogo, asmo eta ilusio berezi bat eta izpiritu horri eustearen aldeko agertu dira.

### **3.2.5. KULTURA ETA AUZOAK**

Auzoetan kultur elkarte garrantzitsuak daudela ikusi da.

Ezagutza aldetik, auzoetako kultur ekintzekiko hutsune nabarmenak sumatzen dira: erdigunekoek ez dute gehiegi ezagutzen auzoetako kultur produkzioa, auzoen artean ere ezagutza falta nabarmena da.

Usurbilgo erdiguneak kultur ekimenak zentralizatzen dituela azpimarratu da.

### **3.2.6. PUBLIKOA**

Herritarren iritziz, zenbait kultur ekitaldietan jendearen erantzuna ez da emanaldi edo ekintzaren tamainakoa izaten, batez ere ekintzak Sutegin antolatzen direnean.

Zenbaitetan, ekintzak antolatzen lan handia egiten dela ikusten da, eta gero, antolatutako ekintzak behar baino jende gutxiago biltzen duenaren sentipena dago.

Orokorrean, kultur kontsumoan hutsuneak nabarmendu dira.

Kalean, aire librean egindako ekintzek, oro har, areto itxietan antolatzen direnek baino arrakasta handiagoa izaten dutela nabarmendu da.

Bestalde, taldekako kultur kontsumoak (Sagardo Eguna, jaiak...), banakako kultur kontsumoa (antzerkia, hitzaldia...) baino arrakasta handiagoa dutela adierazi da.

Herriko taldeak Sutegin ekintzak antolatzekean jenderik ez etortzearen beldur izaten dira.

Ekintza gehienak helduei zuzendutakoak direla adierazten dute herritarrek.

Haurrei zuzendutako ekintzek asistentzia handiagoa izaten dutela azpimarratu da. Haurrei zuzendutako ekintzetara laguntzaile gisa bereziki emakumeak joaten direla ere nabarmendu da.

### **3.2.7. KULTUR EKINTZAK GIZARTERATZEA**

Kultur ekintzekin herritarrengana iristeko zailtasunak ikusi dira: komunikazio bide estandarrez gain (eskuorriak, publizitatea...) herritarrengana iristeko bide berriak jorratu behar direla azpimarratu da.

Kultur ekintza baten produkzioan herritarrek zuzenean parte hartzen dutenean, kultur produkzio horrek gainerako herritarrengan duen emaitza ere hobea izaten dela ohartarazi da.

Kultur Agenda, oro har, komunikazio tresna gisa egoki baloratu da, baina ez da nahikoa ikusten.

Usurbilgo Kultur eskaintza Usurbildik kanpo ezagutarazteko bideak egin beharra nabarmendu da.

Herritarren kultur ohiturak sustatu beharra azpimarratu da.

Kultur komunikazio tresna osagarriak bideratzeko beharra adierazi dute herritarrek: Kultur etxe inguruan panel bereziak jartzea, herriko eskaintzaren erakusleiho zentralizatu bat, web orria, kulturari lotutako logo edo irudia...


### 3.2.8. KULTUR TOKIAK

Usurbilen kultur garapenerako espazio batzuk egoki baloratzen dira: Usurbilgo plaza ingurua, Mikel Laboa plaza, Sutegi,,,

Talde guztiak bilduko dituen gunearen falta dagoela adierazi dute herritarrek.

Herriko kultur espazioak ez direla behar bezala ezagutzen azpimarratu da. Gune fisikoak ezagutzeak bertako kultur ekintzak ezagutzeko bide ematen duela adierazi da.

## 4. PLAN ESTRATEGIKOA



### 4.1. HELBURU OROKORRAK

2012-2016 urte bitartetarako helburuak ardatzak eta ekintzak definitu nahi izan dira plan estrategikoan. Herritarren erantzunak kontuan izanda (hauek 8 eranskinean jaso dira) 2012-2016 urte bitartean, helburu hauek ikusten zaizkio Usurbilgo Kulturgintzari:

- Usurbilgo herri nortasuna indartzea, gure kultura balioan jarritz berezkoa eta bertakoan oinarrituta, kultur transmisioa eta integrazioa ziurtatuz.
- Kultura kultur taldeek kudeatzea, herri ikuspegitik abiatuta eta autogestio bidez.
- Herritarrak kulturgintzan aktibo izatea bai antolaketa, bai partehartzean, bai kultur ohitura eta kontsumoan.

## 4.2. BALIOAK

Helburu horietatik abiatuta, zeintzuk dira kulturgintza honen balio eta irizpideak?

Balioak:

- Kultur taldeen eta eragileen arteko harremana, komunikazioa eta koordinazioa
- Kultur deszentralizazioa
- Genero - berdintasuna
- Euskara
- Euskal lurraldetasuna
- Herriko kultur produkzioa
- Auzogintza eta auzolana
- Autogestioa
- Elkartasuna eta laguntza
- Herritartasuna
- Adin tarte guztien kultur partaidetza eta elkar elikatzea
- Ilusioa

Irizpideak:

- Kultur ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboen arteko oreka: kultur ekintza kopuruari bakarrik begiratu beharrean, kultura egiteko moduari ere (prozesua, parte-hartzea... ) begiratzea.
- Kultur ekintzak desberdinen arteko oreka: antzerkia, musika, dantza...
- Kultur gune desberdinen ezaguera
- Herriko baliabideen eskuragarritasuna

### 4.3. LAN ILDOAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

Helburu estrategikora iristeko bost lan-ildo zehaztu dira. Lan-ildo bakoitzean, era berean, helburu nagusiak eta helburuak aurrera eramateko ekintzak adierazi dira.

<b>LAN-ILDOA: KULTURA BALIOAN JARTZEA</b>
<b>Helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Berezkoa eta bertakoa duguna ezagutu, bildu eta bultzatzea, bai herriari begira, baita kanpora begira ere: herria eta bere mugak, ondarea, toki eta eraikuntza sinbolikoak, ohiturak, gaurko ekintzak, elementu artistiko-kultural desberdinak...</li><li>▪ Usurbildarrak kultura eguneroko bizitzan modu natural eta normalizatu batean bizitzea.</li></ul>
<b>Ekintzak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Formatu desberdinetan (mapak, argazkiak, eskuorriak, agiriak...) alor desberdinetan dagoena biltzea: tokiak, lurak, eraikuntza sinbolikoak, ohiturak, kultur ekintzak...</li><li>▪ Ikastola eta herriko elkarten arteko kultura elkarreragina bideratzea umeei kultura balio moduan transmititzeko. Urtero ekintza batzuk antolatzea umeei parte har dezaten eta aldi berean, kultur adierazpenari buruzko elkarrizketa ahalbideratuz.</li><li>▪ Hilero kultur ekintza bat aukeratu eta elkarten bidez taldeak antolatzea bertara joateko.</li><li>▪ Publizitate kanpaina bat egitea "hilabete bat ekintza bat" leloarekin.</li><li>▪ Kultura Eguna antolatzea.</li><li>▪ Informazio erakusleho bat ahalbideratzea garena, duguna eta egiten duguna erakusteko.</li></ul>

## **LAN-ILDOA: HERRITARRAK**

### **Helburuak**

- Herritarren parte-hartzea eta kultura ekintzailea sustatzea.
- Herritarren arteko kohesioa indartzea maila kulturean: harreman-sarea artikulatzea, auzolana, gertuko harremanak garatzea, ekintzetan parte hartzea,...
- Euskaldunberriak eta etorkinak Usurbilen modu aktibo batean integratzea kulturartekotasuna bultzatuz, bi norabideko elkarrizketa indartuz (eman eta jaso)

### **Ekintzak**

- Herritarren parte-hartzea udaleko funtzionamenduan txertatzea.
- Herriko hainbat konponketa edo lan auzolanean egiteko egunak antolatzea.
- Mintzalaguna taldeak herriko kultur ekintzetan parte hartu eta herriko kultur taldeek Mintzalaguna taldeari ekintzak proposatzea.
- Gurea eta berezkoa dugunaren dokumentazioa osatzeko herritarren partehartzea bultzatzea.
- Usurbilgo Kulturaren Egunaren antolaketan herritarrek parte hartzea.
- Herritarrei ekintzen antolaketetan hasieratik parte hartzeko aukerak emate, heziketa mailan....
- Sutegin panel informatibo ikusgarri eta dinamikoa jartzea eta bertan txertatzea herrian egingo diren ekintzak. Era berean, bertan erakustea herrian egin diren ekintzen emaitza.
- Udaran frontoian zinea antolatzea.
- Herriko irratia martxan jartzea
- Sutegiko erakustaretoan egin diren ekintzak erakustea oinezkoek ikus ditzaten.
- Bertakoen eta etorritakoen arteko harremanak sendotzeko eta elkarrengandik ikasteko kultura ezberdinen arteko harremana diseinatu eta garatzea...

## **LAN-ILDOA: AUZOAK**

### **Helburuak**

- Auzoetako kultur ekintzak indartu, auzoen arteko harremana eta partehartzea bultzatuz eta auzo eta Kaskoaren arteko oreka bilatuz.

### **Ekintzak**

- Errotazio bidezko kultur ekintzak antolatzea auzoetan (haurrekin abiatuta adibidez)
- Herriko ekitaldi nagusietara herriko talde guztiak etortzea. Taldeak sortzea beste elkarteek antolatutako ekintzetara joateko.
- Auzoetako ekintzak herrira eta beste auzoko elkarteetara ere ekartzea.
- Auzoetako kultur espazioak herriko gainerako kultur elkarteek ere partekatzea
- Kultur Agendan auzoetako ekintzak nabarmenduta sartzea
- Auzoen arteko kultur ekitaldiak bultzatzea
- Auzoen artean trukaketa eta laguntza modu naturalean bultzatzea. Adibidez: auzoetako jaietan txoznetako lana beste auzoetakoek eramatea eta alderantziz, poteoa txandaka, ekintzak toki desberdinetan egitea...

## **LAN-ILDOA: TALDEAK**

### **Helburuak**

- Elkarateak indartzea eta beraien lanaren kalitatea sendotzea.
- Elkarteen arteko harremana, koordinazioa eta elkarrekintza bultzatzea, eta elkarreetan herri ikuspegia sustatzea.
- Talde aniztasuna mantentzea.
- Herritarrek modu indibidualean edo elkartuta (talderik izan gabe) kulturen autogestio bidez parte hartzeko aukera izatea.

### **Ekintzak**

- Kultur Elkarreetarako prestakuntza prozesua diseinatu eta bideratzea (kudeaketa, antolaketa, salmenta teknikak, informatika,...)
- Usurbilgo Kulturaren Web orria diseinatzea. Foro pribatua egotea taldeen elkarrekin bideratzeko, Kultur Agenda dinamikoa...
- Elkarreetek iritzi eta esperientziak trukatzeko.
- Kultur Eguna ospatzea: Egunaren forma erabakitzea (egun berezia, jai egun batean txertatzea...), adierazteko moduak konpartitzea, elkarren artean kultur formatuak diseinatzea...
- Herriko gainerako kultur taldeak ezagutzea: non daude, izaera, zer egiten duten, fisikoki espazioa ezagutzea...
- Antolatu nahi diren ekintzak ezagutaraztea beste taldeei. Honetarako, bereziki, web orria erabiliz.
- Jardueraren antolakuntzan elkarlana baloratzeko modua definitzea.
- Taldeen arteko elkarlana (elkarlaguntza) bideratzea.
- Ekintzak elkarrekin desberdinen artean antolatzea bultzatzea.
- Herri ekimena mantentzea.
- Sute-giren erabilera naturala bultzatzea.
- Kultur Elkarreen artean Ate Irekien Eguna antolatzea, deialdi zabala eginez.



## **LAN-ILDOA: KULTURA ANTOLAMENDUA EGITEA**

### **Helburuak**

- Herri kultura kudeatzea, herri ikuspegitik abiatuta eta autogestio bidez.
- Baliabide eta tresna egokiak taldeen eskura jartzea.
- Udalak bere jardunean kulturari behar besteko toki eta garrantzia ematearen rola hartzea.
- Kultur ikuspegi estrategikoa gizarteratzearen lana kulturako talde eragileok barneratzea.

### **Ekintzak**

- Agenda konpartituaren tresna sortzea, gainjartzeak ekidinez: datu base egokia, foroak...
- Udaleko webgunean, kultura arloko erabiltzaile desberdinen parte hartzea ahalbideratzea.
- Festak modu kolektiboan antolatzea: ekintza soilak antolatu beharrean, hasieratik bukaera arte "benetako" festa partehartzaileak antolatzea.
- Orekaren irizpidea aintzakotzat hartuta antolatzea kultur ekintzak: Genero berdintasuna, belaunaldien arteko oreka, ekintza moten artekoa: (musika, antzerkia, dantza, zinea,...),
- Euskara gaitzat duten ekintzak antolatzea. Adibidez: hitzaldiak, antzerkiak, erakusketak...
- Herri azpiegiturak taldeen eskura egotea.
- Kultur ekintzen balorazioa modu kolektiboan eta herri maila egitea: kritika konstruktiboa bultzatzea.
- Urtero kultur eragileekin batera (Kultura Aholku Batzordean) kulturako plan estrategikoa aintzakotat hartuta, urteko plangintza egitea.
- Kultur elkarteei baliabidetan babesa ematea: baliabideen eskuragarritasuna, garrantzia mediatikoa...
- Kultura Aholku Batzarra sendotzea.
- Usurbil eta Kultura ideiak lotzen dituen irudia eta logoa sortzea modu partehartzaile batean.
- Urteko plangintzan diru-kosturik gabeko ekintzak ere antolatzea

## **5. ERANŞKINAK**